

Nafar hizkuntza

euskera@diariodenavarra.es

Komedia beltz bat filmatuko dute Nafarroan Altuna eta Esnalek

'Urteberrion, amona!' martxoan hasiko dute errodatzen Esnaletan zuzendaritzapean

DN. Iruñea

Hauek Estatu Batuak izango balira ziurrenik pelikularen aurretik *Aupa Etxebeste!*-ren sortzaileen eskutik...” edo halako esamolderen bat agertuko litzateke. Baina euskal zinema nahikoa da bi izen aipatzea: Asier Altuna eta Telmo Esnal, fikziozko Etxebestetarren kontuekin euskarazko zinemagintza berpiztu zuten bi gipuzkoarrak.

Martxoan beste komedia bat filmatzen hasiko dira, *Urteberrion, amona!*, beste lekuren batzuen artean Nafarroako Bera, Etxalar eta Erratzu herrietan. Filmak umore beltzetik jorratuko du adinekoak zaintzeko gaia eta, horri loturik, aitona-amonak zaharren egoitzan sartzea erabakitzeke une delikatua. Irusoin Ekoiztetxearen asmoa da film luzea aurtengo Donostiako Zinemaldian aurkeztea.

Pelikula hau Esnal eta Altunaren bigarren lana da; biak



Telmo Esnal zuzendaria. DN

arituko dira gidoigile, eta Telmo Esnal, zuzendari. 70.000 ikuslek baino gehiagok ikuzi zuten *Aupa Etxebeste!*.

Oraingoan, protagonista nagusia Maria da, hau da, alaba Maritxurekin eta haren senarrarekin, Joxemariarekin, bizi den alarguna. Joxemari, bere alabarekin eta suhiarekin batera plan bat abiaraziko du amona zaharren egoitza batean sartzeko. Baina Marik zahar etxetik ihes egiten du, sufri-mendu latza hasiz guztientzat.



Ikuskizunaren aurreko saio bat. Argazkian, Knörr, Urko, Etxart eta besteak.

ELKAR

Elizondo, 70eko abestietan blai

DN. Iruñea

Pasa den larunbatean Elizondoko Lur aretoan garrantzi handiko musika-ekitaldia izan zen. Elkar diskoetxeak argitaratutako *Gu gira* eta *Euskal Herriko Lur Maitea* bilduma arrakastatsuetako hainbat abesti eta abeslari zuzen-zuzenean entzuteko

aukera izan zuten. Ekitaldian aurkeztu ziren abestien bidez, han izan ziren abeslariak 1970eko hamarraldiko Euskal Herriaren ikuspegia eskaini zuten. Kantaldi horren bidez euskal nortasunaren berpizkundearen historia gogoratu nahi zuten, ezkutuko musika-orroitzapenen bidez. Izan ere hor

dago Euskal Kantagintza Berriaren berezko ardatza, berriaren ustez.

Kantaldian Gorka Knörr, Urko, Txomin Artola, Niko Etxart eta Erramun Martikorena, Jean Mixel Bedaxagar eta Pantxoa eta Peio, horien guztien kantuak zuzenean entzuteko aukera izan zuten Elizondon.

Bertsolamintza martxoaren 4an helduko da Iruñera

Martxoaren 4an helduko da Iruñera Bertsolamintza programa. Bertsolaritzari buruzko gogoetek eta ikerketek osatzen dute Bertsolamintza. Laugarren edizio honetan bertsolaritzan diren inertziei erreparatuko diete parte hartzaileek. Egun horretan, Hizkuntza Eskolan bi hitzaldi egongo dira seietaik aurrera. Jon Martin eta Estitxu Eizagirreren *Zer ikasi behar da bertso eskoletan? zer desikasi?* eta Jon Ansaren *Bertsokera(k) eta sistema(k)*. 19:45etan eztabaida publikoari irekia Jon Martin, Estitxu Eizagirre eta Jon Ansarekin. Moderatzailea: Arkaitz Goikoetxea. DN

Guraso/hezitzaile eta haurren elkar ulertzeari buruzko ikastaroa

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) ikastaro berri bat prestatu du udaberrirako. *Guraso/ hezitzaile eta haurren elkar ulertzea: erlazioak erakitzeke zigorra, xantaiak eta mehatxuak ekiditen* da ikastaroaren izenburua. Nerea Mendizabal Etxebarria izango da irakaslea. Psikopedagoga, gizarte hezitzailea eta haur masaje hezitzailea da Mendizabal. Ikastaroa apirilaren 2an egingo dute, eta 9 ordukoa da. Prezio orokorra 58,50 eurokoa da (langabe, jubilatu eta ikasleentzat, 52,65 eta UEUko kideentzat, 52,85). Informazio gehiago: www.ueu.org DN



EUSKARAZKO HEDABIDEEN AGERRALDIA

Ehundik gora dira egun euskaraz ari diren hedabideak, 620tik gora bertan lan egiten duten langileak eta 450.000 berauek jarraitzen dituzten pertsonak. Aste honetan Donostian bildu ziren. "Erroka berriei aurre egiteko sostengu erantsi bat behar izan dugunean, languntzak murriztuta ikusi ditugu, krisiaren aitzakian. Horren ondorioz, gure borondatearen kontra biziraupena gure egunerokoaren erdigunean kokatu da", esan zuten bertan. Zailtasunei aurre egiteko, hainbat ekimen egitea erabaki zuten eta webgune bat ireki dute: www.blogak.com/ehedabideak.

Manuel Irujoen artxiboko 30.000 orrialde Interneten

Manuel Irujo II Errepublikan Justizia ministro izandakoaren artxiboko 28 kutxa dagoeneko digitalizatu, katalogizatu eta Interneten eskegi ditu Eusko Ikaskuntzak. Gudua eta Erbestertzearen gainekoak dira, hain zuzen ere. Euskomedia Fundazioari esker jadanik sarean politikari naparraren 30.594 orrialde ipini dira, fondoaren heren bat. Orriok ikusteko, ondorengo helbidean: www.euskomedia.org/irujodn DN

Euskal kazetaritzaren X. Jardunaldiak gaur hasten dira Iruñean

Hizkeraz eta hizketaz lelopean Nafarroako Unibertsitateak euskarazko kazetaritzaren jardunaldiak antolatu ditu otsailaren 21 eta martxoaren 3 zein 8rako. Bertan, Arantxa Arza, Euskadi Irratiko esataria, Ander Izagirre kazetaria eta Asier Larrinaga EITBko euskara arloko arduraduna arituko dira. Giza Zientzien eraikinean izango dira topaketa hauek, arratsaldeko seieta. DN



agenda

Otsailak 23, asteazkena

HITZALDIA EUSKARAZ Fermín Erbiti eta Kepa Larrea

Hiru koaderno txiki itzalak harturik Nafar Ateneoarekin eta Biurdana Institutuarekin elkarlanean Erraldioen Txokoa Kultura Alorreko Hitzaldi-aretoa (Descalzos kalea, 72). 19:30

Otsailak 24, osteguna

Antzerki Aroa 2011

ANTZERKIA

Xake. Oihulari Klown

Sarrerak 8 euro (Ikasle taldeak: 5 euro) Nafarroako Antzerki Eskola (S. Agustin kalea, 5). 20:30

Otsailak 26, larunbata

Haur programazioa euskaraz

ANTZERKIA

Ateak edonon sortzen direnean

Taldeak: Pasadas las 4 Sarrerak: 3 euro Mikael Aretoa (Gurutzeko plaza). 12:00

Más información: teléfono 010 • www.pamplona.es